



## PDCA ETA HOBEKUNTZA PLANA

Neurri zuzentzaileak ezarri eta datuak lortzeko baliagarriak direla egiaztatu ostean, PDCA zikloa gauzatzea komeni da, urteko hobekuntza plana izateko.

**PDCA** zikloa, “Círculo de Deming” izenez ere ezaguna, kalitatea etengabe hobetzeko estrategia bat da, lau urrats dituena. **PDCA** siglak **P**lan, **D**o, **C**heck, **A**ct (plangintza egin, gauzatu, egiaztatu eta jardun) hitzen akronimoa dira.

### Plangintza egin (P)

Plangintza egitea espero den emaitza lortzeko beharrezkoak diren xedeak eta prozesuak ezartzea da. Beraz, definitu eta zehaztu egin beharko dira emaitza hori lortzeko garatu beharreko ekintzak, eta urtetik urtera hobetu egin beharko dira.

Honako hauek izan daitezke etapa honetako urratsak:

- Hobetu nahi den prozesua identifikatzea.
- Datuak biltzea, prozesua hobeto ezagutzeko.
- Datuak aztertzea eta interpretatzea.
- Hobetzeko xedeak ezartzea.
- Espero diren emaitzak zehaztea.
- Helburu horiek lortzeko beharrezkoak diren prozesuak definitzea eta, horretarako, zehaztapenak egiaztatzea.

### Gauzatzea(D)

Etapia honetan aurreko etapan definitutako prozesuak ezartzen dira.

Halaber, datuak bilduko dira zehaztutako neurketa-adierazleen bidez, hurrengo etapetan erabili ahal izateko. Hau da, egindako ekintzak dokumentatu egingo dira.

### Egiaztatzea (C)


Aldez aurretik aurreikusitako denbora-tartea igaro ostean, kontroleko datuak berriz bildu eta aztertu beharko dira. Halaber, hasierako xede eta zehaztapenekin erkatuko dira, hobekuntza gertatu den egiaztatzeko. Ondorioak dokumentatu egingo dira.



## Jarduntzea (A)

Aurretik egiaztatutakoa doitzeko eta zikloa amaitzeko, honako urrats hauek gauzatu beharko dira:

- Beharrezkoa balitz, prozesuak aldatu egingo dira aurreko urratsen arabera, hasierako zehaztapenak dituzten xedeak lortzeko.
- Beste hobekuntza batzuk aplikatuko dira, aurreko urratsean atzeman badira.
- Prozesua dokumentatuko da.



## Hobekuntza plana

Azken doikuntza etapa honek eskainiko digu Hobekuntzen Plana, hau da, plan berriak identifikatutako eta sartutako aldaketak guztiak bere baitan hartzen dituen prozesu berriaren agiria.